

2.011KO ABENDUAK 29

OHIKO PLENOA.

Bertaratuak:

ALKATEA
ZINEGOTZIAK:
Bertaratuak:

Maria Jesus Salsamendi Astiazaran

Jokin Uzkudun Goenaga.
Nerea Agirretxe Aranburu.
Harkaitz Arruti Eizagirre.
Leire Beristain Mendizabal.
Luis Berrondo Lanceta.
Iñaki Irulegi Apalantza.

IDAZKARIA:

Maria Etxeberria Urretabizkaia.

Errezilgo Udaletxeko Batzar Aretoan, bi mila eta hamaikako abenduaren hogeita bederatziko hogeita bat ordu eta hamar minutu izanik, Errezilgo Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate Anderearen Lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren Zinegotzi Jaun/Andereen partaidetzaz.

Lehendakaritzaren aginduz Batzarra hasi ondoren, Idazkariak adierazi du berau burutu daitekeela legeak ezarritako quoruma bertan dagoelako.

LEHENENGO PUNTUA:
3/2011 KREDITU ALDAKETA TRANSFERENTZIEN MODALITATEAN
ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.

Gai zerrendako puntu hau dagokion Batzorde Informatzaileak diktaminatua izan ez denez, azaroaren 28ko 2568/86 Erret Dekretuaren 82.3 artikuluan agindutakoa beteaz, berau gai-zerrendan sartzea Udalbatzaren berrespenera jartzen da.

Puntu hau gai-zerrendan sartzea Udalbatzak aho batez berresten du.

Idazkariak 3/2011 zenbakia daraman kreditu aldaketa transferentzian modalitatearen berri ematen du, kreditu aldaketaren laburpena ondorengoa delarik:

Transferitutako kredituak biltzen dituzten gastuen partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Gutxipena	Amaierako Kreditua
1.0000.100.110.00.01	Alkatearen asignazioa	20.000,00	678,06	19.321,94
1.0000.120.120.00.01	Idazkariaren ordainak	45.850,00	196,03	45.653,97
1.0000.130.432.00.01	Edifizio publikoen garbitzaile	27.500,00	2.275,83	25.224,17
1.0000.160.314.00.01	Gizarte Asegurantzak	43.000,00	4.954,05	38.045,95
1.0000.162.120.00.01	Heziketa	300,00	300,00	0,00
1.0000.210.511.00.01	Azpiegiturek, natur ondasun	10.000,00	3.975,00	6.025,00
1.0000.221.442.00.04	Ibilgailuen erregaiak	1.100,00	300,00	800,00
1.0000.221.432.00.03	Erregaiak: edifizio publikoak	13.000,00	1.753,98	11.246,02
1.0000.222.120.00.02	Posta bidezkoak	1.400,00	250,00	1.150,00
1.0000.222.120.00.04	Udaletxeko faxa	400,00	60,00	340,00
1.0000.226.313.00.06	Zaharren eguna eta bidaiak	3.500,00	1.000,00	2.500,00
1.0000.227.432.00.07	Udal Arkitektoa	15.000,00	1.200,00	13.800,00
1.0000.481.750.00.01	Ekoturismoa	1.500,00	1.000,00	500,00
1.0000.601.511.00.01	Baserri bideen konponketa	34.000,00	640,82	33.359,18
GUZTIRA		216.550,00	18.583,77	197.966,23

Gehitutako diren kredituak biltzen dituzten gastuen partidak (altak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako Kreditua
1.0000.130.442.00.01	Aguazilaren ordainak	35.000,00	1.800,00	36.800,00
1.0000.220.120.00.01	Bulegoko ohiko ekipoa	2.000,00	500,00	2.500,00
1.0000.221.120.00.01	Argikuntza: Udaletxea	2.000,00	200,00	2.200,00
1.0000.221.441.00.01	Argikuntza: ur hornidur bonba	2.050,00	300,00	2.350,00
1.0000.221.443.00.01	Argikuntza: hilerria	1.100,00	350,00	1.450,00
1.0000.221.452.00.01	Argikuntza: pilotalekua	250,00	250,00	500,00
1.0000.221.432.00.01	Garbitzeko produktuak: edifi	800,00	200,00	1.000,00

1.0000.221.441.00.09	Garbitzeko produktuak: kloroa	300,00	100,00	400,00
1.0000.222.120.00.01	Informatika komunikazioak	12.500,00	452,25	12.952,25
1.0000.226.120.00.03	Publizitatea, propaganda	900,00	268,55	1.168,55
1.0000.226.120.00.04	Juridiko aholkularitza	16.000,00	186,80	16.186,90
1.0000.227.313.00.99	Zentro balioanitzeko funtzion	62.000,00	1.650,00	63.650,00
1.0000.227.511.00.99	Desbrozatzte eta elur kentze la	7.000,00	2.917,90	9.917,90
1.0000.221.120.00.05	Aguazilaren erropak	0,00	477,40	477,40
1.0000.322.010.00.01	Epe luzerako maileguen intere	17.500,00	1.100,00	18.600,00
1.0000.481.451.00.01	Kultura dirulaguntzak	4.200,00	90,00	4.290,00
1.0000.481.412.00.01	Dya dirulaguntza	1.400,00	8,27	1.408,27
1.0000.622.452.00.01	Eskola ondoko parkea	26.181,29	1.622,50	27.803,79
1.0000.721.441.00.01	Gipuzkoako Ur Kontsorzioa	10.000,00	3.885,00	13.885,00
1.0000.933.010.00.01	Epe luz maileguen amortizazi	87.000,00	2.225,00	89.225,00
GUZTIRA		288.181,29	18.583,77	306.765,06

Idazkariak aipatzen du, indarrean dagoen legediaren arabera, aipaturiko kreditu aldaketa ez dala Boletinean argitaratu behar eta kontabilitatean apuntea automatikoki egiten dela.

Gaia botutara jarri ondoren, Udalbatzak, aho batez, aipaturiko kreditu aldaketa onartu du.

BIGARRENGO PUNTUA:

JOSE RAMON AGIRRE BENGOETXEA JAUNAK ERREZILGO HERRIGUNEAN KOKATUTA DAGOEN PILOTALEKU ONDOKO LOKALA (GAUR EGUN ZERRATEGIA BEZELA EZAGUTZEN DENA) URTEBETEZ LUZATZEKO AURKEZTU DUEN ESKAERAREN AZTERKETA.

Gai zerrendako puntu hau dagokion Batzorde Informatzaileak diktaminatua izan ez denez, azaroaren 28ko 2568/86 Erret Dekretuaren 82.3 artikuluan agindutakoa beteaz, berau gai-zerrendan sartzea Udalbatzaren berrespenera jartzen da.

Puntu hau gai-zerrendan sartzea Udaltzarak aho batez berresten du.

Alkateak jakinerazten du, 2011ko azaroaren 24an Joxe Ramon Agirre Bengoetxea jaunak frontoi ondoko lokalaren ustiapena beste urte betez gehiago luzatzeko eskaera aurkeztu duela, 2011ko abenduaren 31an esleipena bukatzen bait zaie.

Idazkariak jakinerazten du luzapen hau “ contrato menor” figura bezela tramitatuko dela.

Ondoren Leirek aipatzen du, bere garaian sinaturiko kontratuan esleipendunak sarrerako atea konpondu beharko zuela jartzen zuela.

Gaia botutara jarri ondoren, Udaltzarak, aho batez, zera erabaki du:

1.- Kontratua beste urtebetez luzatzea, epe hau luzaezina izango da eta 2012ko abenduaren 31an bukatuko da.

2.- Idatzi hau jaso eta hurrengo egunetik hasi eta 45 egunetako epea ematea, sarrerako atea konpontzeko.

3.- Udaletxean lokala nork erabiltzen duenaren idatzia aurkeztea.

HIRUGARREN PUNTUA: ZENBAIT MOZIOEN AZTERKETA.

Nereak jakinerazten du Egin dezagun bidea ekimenak ondorengo mozioa aurkeztu duela:

1.- Euskal Presoak Euskal Herrira ekartzea.

2.- Espainiar estatuan ezartzen den 197/06 doktrina bertan behera uztea, eta zigorra bete duten presoak askatzea. Finean, bizi osorako espetxe zigorrarekin amaitzea.

3.- Frantziar estatuan ezartzen den bizi osorako zigorra bertan behera uztea, baldintzapeko askatasunei bide emanez.

4.- Zigorraren 3/4ak bete dituzten presoek askatzea.

5.- Gaixotasun larriak dituzten presoak askatzea, eta bestelako gaixotasunak dituzten presoek zaintza egokirako beharrezko neurriak hartzea. Finean presoek osasunerako eskubidea bermatzea da eskatzen duguna.

6.- Ireki den aro berrian gatazkaren soluzio bidean modu positiboan eragiteko frantziar eta espainiar estatuek darabilten espetxe politika konponbide gakoetan ezartzea.

Bozketa egintu ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak Maria Jesus Salsamendi Astiazaran, Jokin Uzkudun Goenaga, Nerea Agirretxe Aranburu eta Harkaitz Arruti Eizagirre.
2. Abstentzioak: Luis Berrondo Lanceta, Iñaki Irulegi Apalantza eta Leire Beristain Mendizabal.
3. Aurkako boturik:ez dago.

Beraz, mozioa onartuta geratzen da.

**LAUGARREN PUNTUA:
ORDAINAGIRIEN ONARPENA.**

Ez dago ordainagiririk.

**BOSTGARREN PUNTUA:
GALDERAK ETA ERREGUAK.**

1.- Leirek galdetzen du, ea pasa den astean urarekin zer gertatu zen. Urarekin arazoren bat baldin badago, bando bat zabaldu beharko litzatekeela uste dut.

Gai honekin Udalak zein protokolo jarraitu behar duen konkretatu egin beharko litzateke.

2.- Alkateak jakinerazten du, Udaletxeko langileei oporren egutegia egitea eskatuko zaiela.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko bederatzia eta hogeita hamar minutu direnean, Alkateak amaitutzat eman du udalbatzar hau eta nik, Idazkari gisa, Akta jaso dut.